

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IBILGAILUAREN MOTORRAREN ABIO-SISTEMAREN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF1100		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuak kargatzeko eta abiarazteko sistemak eta oinarrizko zirkuitu elektroteknikoak.	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Automobilari aplikatutako elektrizitatea, elektromagnetismoa eta elektronika	Iraupena	80
	Kargatzeko sistema alternadore-dunaren mantentze-lanak		50
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0626_2: IBILGAILUAK KARGATZEKO ETA ABIARAZTEKO SISTEMEN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin, elektrizitateko eta elektronikako oinarrizko ezagutzari dagokionez..

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Abio-motorra eta abio-zirkuituari lotutako elementuak beren ezaugarrien arabera mantentzea.

E1.1 Induzitua, estatorea, eskuilak eta abiarazteko errelea ordeztzea.

E1.2 Kable akastunak eta sistemako beste elementu batzuk ordeztzea.

E1.3 Abio-motorra saiakuntza-bankuan probatzea eta elementu akastunak ordeztzea.

E1.4 Abio-motorraren kurba ezaugarriak lortzea, eta lortzen diren balioak zehaztutako balioekin bat datozela egiaztatzea.

E1.5 Abio-zirkuitua panelaren edo maketaren gainean egitea, eta eskemen espezifikazio teknikoaren eta egindako kalkuluaren arabera muntatzea.

A2: Abio-sistema elektrikoaren matxurak identifikatzea, eta haren funtzionamendua aztertzea, ekipo, baliabide eta diagnostiko-teknika egokiak erabiliz.

E1.2.1 Abio-zirkuituari buruzko dokumentazio teknikoaren hautatzea eta interpretatzea.

E1.2.2 Abio-zirkuituen ezaugarriak eta osaera deskribatzea, eta sistemaren krokis bat egitea.

E1.2.3 Matxuraren sintomen arabera saiakuntzak egiteko puntu gakoak eta neurtu behar diren parametroak identifikatzea eta deskribatzea.

E1.2.4 Elementuak egiaztatzea diagnostiko-sekuentzia logiko bati jarraituz eta espezifikazio teknikoak betetz.

E1.2.5 Ahal den neurrian, matxura erreproduzitzea eta matxurak izan ditzakeen kausetan ekitea.

E1.2.6 Matxuraren kausak eta matxura konpontzeko prozesua azaltzea.

E1.2.7 Matxuren kausa eta ondorioen taula arrazoituak egitea.

A3: Kargatzeko eta abiarazteko sistemen mantentze-lanak egiteko behar diren material, ekipo, erreminta eta tresna espezifikoak trebetasunez erabiltzea, ezarritako eta arrazionalizatutako prozesuen arabera.

E1.3.1 Muntzako eta elementuak muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketen sekuentzia zuzena ezartzea.

E1.3.2 Saiakuntza ekipoak, neurgailuak eta diagnostikoa egiteko baliabideak behar bezala erabiltzea.

E1.3.3 Doikuntza kalibratuen neurrien zehaztasuna egiaztatzea.

Edukiak

1. Abio-motorra

- Abio-motorraren funtzionamendu-printzipioa
- Indar kontraelektroeragilea abio-motorretan
- Abio-motorraren osagaiak
- Abio-motor ardazkidea eta induzitu lerrakorrekua
- Abio-motorraren konexioak eta funtzionamendua
- Abio-motorraren agente-sistemak
- Sistema erreduktorea eta engranajea
- Abio-motorren ezaugarriak

- Abio-motorren kurba ezaugarriak
- Abio-motorren tentsio izendatua eta potentzia

2. Abio-zirkuitua

- Ezaugarriak eta osaera
- Abio-zirkuituari dagokion dokumentazio teknikoa
- Puntu gakoak eta parametroak

3. Abio-sistema egiaztatzea eta kontrolatzea

- Abio-motorrak instalatzea, erabiltzea eta mantentzea
- Abio-zirkuitua egiaztatzea
- Abio-motorreko osagaiak egiaztatzea eta kontrolatzea (induzitua, estatorea, eskuila-tapa eta abar)
- Abio-motorraren saiakuntzak bankuan eta ibilgailuan

4. Abio-sistemen mantentze-lanak

- Kargatzeko eta abiarazteko sistemen mantentze-lanak egiteko material, ekipo, erreminta eta tresneria espezifikoak.
- Saiakuntza- eta neurketa-ekipoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1099: Automobilari aplikatutako elektrizitatea, elektromagnetismoa eta elektronika

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak